

SEGMENTAZIOA:

Gure enpresan ingurumenaren ongizatea zaintzea eta haren egoera hobetzea helburu nagusienetako bat da. Horregatik, gure uraren prezioa merkatuko beste batzuen aldean altuagoa izan daiteke. Prezio altu horrek esan nahi du gure bezeroak, seguru asko, ingurumenaren egoeraz arduratzen diren pertsonak izango direla, ingurumenarekiko kontzientzia garbia eta konpromisoa dutenak. Gure produktua baloratuko dute, ez soilik kalitateagatik, baita ingurumenari egiten dion ekarpenagatik ere.

Bestalde, gure ura erosteko aukera izango duten pertsonak gehienetan baliabide ekonomiko handiagoak dituztenak izango dira. Hau da, diru gehiago duten pertsonak izango dute gure produktua eskuratzeko aukera handiagoa. Ondorioz, gure bezero-taldea, ziurrenik, adin nagusiko pertsonak izango dira, 45 urtetik gorakoak beharbada, bizimodu jasangarri batean inbertitzeko prest daudenak eta honelako produktuetan interesa dutenak.

Gainera, udaletxeak ere gure bezero nagusien artean egon litezke. Udaletxeek askotan diru-sarrera nahikoak dituzte halako inbertsioak egiteko, eta, oro har, ingurumenaren aldeko neurriak hartzea eta ingurune jasangarriago baten alde lan egitea beren arduretako bat izaten da. Beraz, gure produktua euren helburuak betetzeko tresna baliagarri bat izan daiteke. Udaletxeek, gainera, ingurumenaren egoera hobetzeko ekimenetan parte hartzen dutenez, guk eskaintzen dugun ur mota horrekiko interesa izatea espero dugu.

Laburbilduz, gure enpresaren produktua ingurumenarekiko konpromisoa eta ardura duten pertsonentzat eta erakundeentzat pentsatuta dago, eta horrek gure bezero potentzialen profila nahiko argi definitzen du. Gure produktuak prezio altuagoa izan arren, gure bezeroak kalitateari eta jasangarritasunari lehentasuna ematen dioten pertsona eta erakundeak izango dira.

